

JOKABIDE ZIBIKOARI BURUZKO ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA, OKUPAZIOA ETA GARBIKETA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Hiri bateko garbiketa, ongizatea eta apaindura publikoa komunitatearen balioak dira, eta behar bezala babestu behar dira berriazko araudi baten bitartez.

Gizarte moderno batean, herritarren arteko bizikidetzaren askatasunaren eta tolerantziaren barruan babestu behar da, prebentzioan eta gizartearen uste sendoetan oinarrituz, eta hondar-balio hutsa eman behar zaio jokaera desegokien errepresioari.

Herritarrak, haiek ordezkatzeko dituzten erakundeak, auzo-elkarteak, gizarte-taldeak, ikastetxeak eta abar: horietan lor dezakete, irizpide arduratsu batean oinarrituta, udalerrira bat garbia, segurua, eroso, jasangarria eta gainerako duintasunarekiko eta eskubideekiko errespetuzkoa izan dadin.

Jokabide Zibikoari buruzko eta Bide Publikoaren Erabilera, Okupazioa eta Garbiketa Arautzeko Udal Ordenantza honek, besteak beste, espazio publikoaren erabilera desberdinak antolatzea du xede, espazio publikoaz guztiok egiten dugun erabilera hobeto babesteko. Espazio publikoa pertsona guztiei era berean eta bereizkeriarik egin gabe dagokien espazioa da; eta ondasunen izaeraren arabera erabiltzen da, egon daitezkeen erabilera guztiak harmonizatzea eta modu ezin hobean batera biltzea lortze aldera.



Antolamendu hori lortzeko, beharrezkoa da balio zibikoak indartuko dituen udal-jarduera bat, herritarren hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatuko dituen eta zibikoak ez diren eta kaltegarriak diren jokabideak errotik kenduko dituen. Espazio publikoa herritarren bizikidetzarako eta ekintzarako gune gisa erabiltzeko, ondo bermatu behar da lasaitasun, segurtasun eta irisgarritasun arloko baldintzak egokiak izango direla, eta, horretarako, zehaztapen batzuk finkatu behar dira, guztion erabileran dituzten ondorio kaltegarrien eraginez herritarren gustukoak ez diren erabilerak zehazteko.

Herritar guztion erabilera berezko horrez gain, badaude beste erabilera berezi eta pribatibo batzuk, eta arriskuak izan daitezke guztion erabileraren kalitateari begira. Hori dela eta, lehenetsuna izan behar du udal-irizietan, eta Udalaren esku-hartzea beharko dute.

Espazio publikoaren erabilera arrunt eta erabilera berezi horiek arautuz, asmoa da erabilera horien mugak argitzea eta araudi bat ezartzea zenbait pertsonaren aurrean baliatzeko, bestela, pertsona horiek beti babestu ahal izango baitira araurik ezan beren jokabide ez legezkoak babesteko.

Ordenantza hau egiteko, Udalak toki-araubidearen arloan dituen eskumenak eta, orobat, sektoreko araudietan jasota daudenak hartu dira aintzat, baita, zehazki, 7/1985 Legearen XI. tituluaren ezarritakoa ere.

1. artikulua. XEDEA.

1. 1. Ordenantza honen xedea da kalitatezko espazio publiko bat bermatzea. Horrek esan nahi du hala Administrazioak nola herritarrek jokabide erantzunkide bat izan behar dutela udalerriko garbiketa-estrategiei dagokienez eta jokabide zibikoa izan behar dutela bide publikoan. Horretarako, honako hau arautzen du ordenantzak:

-bide publikoen garbiketa.

-udalerriko zikinkeria prebenitzea.

-hondakinak jasotzeari eta uzteari dagokion garbiketa.

- obra-inguruetako garbiketa.
- Karga- eta deskarga-lanetako garbiketa
- elurteetako garbiketa.
- animaliei dagokien garbiketa.
- elementu pribatuen garbiketa.
- eremu pribatuetako garbiketa-betebeharrak.
- jarduera pribatuen eraginpeko espazio publikoaren garbiketa.
- bide publikoaren garbiketa, hainbat ekintzaren eta jardueraren ondoren.
- antolamendua eta garbiketa kartelak, pankartak, banderatxoak, esku-paperak, pegatinak, pintadak, grafitiak eta horma-irudiak jartzean.
- bide publikoaren okupazioa eta erabilera.
- jokabide zibikoa bide publikoan
- kaltea konpontzea eta garbiketa-egoera lehengoratzea.
- Arau-hausteak eta zehapenak.

2. artikulua. UDAL-BETEBEHARRAK.

Zumaia Udalak garbituko du bide publikoko sarea (kaleak, plazak, ibilgailuenak zein oinezkoenak) eta jasoko ditu bertako hondakinak, bere eskumenen barruan, kudeaketa zuzenaren zein zeharkakoaren bitartez, zerbitzua behar bezala emateko behar den maiztasun eta ordutegian.

3. artikulua. HERRITARREN BETEBEHARRA ETA ELKARLANA

3. 1.- Herritarren betebeharra da pertsona guztiek guztientzako bizikidetzako espazio batez goza dezaten bermatzea eta, horretarako, herritarren lasaitasuna eta bakeari kalte egingo dioten gehiegizko erabilerak saihestea. Hori lortzeko, herritar guztiek lagundu behar diote udal-administrazioari erabilera desberdinen antolamenduan.

4. artikulua. DERRIGOR BETETZEKOA

4. 1.- Ordenantza hau zein Alkateak ordenantzari lotuta edozein unetan emandako xedapen osagarri guztiak, txosten tekniko loteslean jasotakoak, derrigor betetzekoak dira.

4. 2.- Udal-agintaritzak ordenantza hau berehalakoan bete dadila eskatu ahalko du; hortaz, arau-hausteren bat egiten bada, berau zuzentzeko eskatuko dio egileari, eta, nolana ere, gerora erantzukizunak eskatu ahal izango dira.

4. 3.- Alkateak edo ahalmena ematen dion organoak, udal-zerbitzuek proposatuta, zigorra jarri ahal izango die, Ordenantza honen arabera, jarrera jakin batekin ordenantzan xedatutakoa urratzen dutenei.

I. TITULUA.- BIDE-GARBIKETA.

5. artikulua. SUBSIDIARIOTASUNA.

5. 1.-. Udalak subsidiarioki egin ahal izango ditu hondakinak garbitu, bildu eta garraiatzeko lanak, baldin eta pertsona fisikoek eta juridikoek ez badituzte zuzenean egiten ordenantza honen arabera haiei dagokienean. Emandako zerbitzuen kostua haien kargura ordainduko du gero, kasuan-kasuan dagozkien erantzukizunak edota zigorrak gorabehera.

Aurreko atalean bezalaxe, Udalak modu subsidiarioan egin ditzake ondasun higiezinetako elementuen eta kanpoko gauzen mantentze-, konpontze- eta garbitze-lanak, baita bertan behera utzitako hondakin-materialak kargatu, kendu, garraiatu eta suntsitu ere, eta berdin jardun dezake baldin eta betetzen ez badira ordenantza honetan araututakoak.

6. artikulua. KALEAREN GARBIKETA ZAINTZE ALDERA BIDE PUBLIKOAN BAIMENDUTA EZ DAUDEN JOKAERAK EDO PORTAERAK

6. 1.- Ezin da hondakinik, hondarririk edo zaborrik (likidoa zein solidoa) bota, jaurti, hustu edo utzi bide publikoan edo erabilera publikoko zortasunarekin zergapetutako espazioetan (galtzada, espaloia, berdeguneak, orubeak, errekak...),ezarrita dagoen zabor-bilketaren sistemaren testuinguruan utzitako hondar materialak izan ezik.

6. 2.- Hondakin solido txikiak eta kopuru txikikoak birziklatzeko moduan utzi behar dira, horretarako instalatutako paperontzietan. Inola ere ezin da utzi paperontzietan beste hondakin motarik, hala nola garbiketa pribatuetako hondarririk, etxeko eta lokaletako zaborrik, industrietako zaborrik...

6. 3.- Debekatuta dago zigarroak, zigarrokinak edo bestelakorik piztuta paperontzietan edo edukiontzietan botatzea. Itzalita utzi behar dira.



6. 4.-Debekatuta dago edozein material, bai likidoa bai solidoa, saneamendu-sarean isurtzea. Zerbitzu publikoek baino ezin dute egin hori: bide-garbitzeta zerbitzuek, suhiltzaileek edo 12. 2 artikuluan adierazitakoek...

6. 5.- Debekatuta dago beharizan fisiologikoak bide publikoan egitea:kaka egitea, pixa egitea...

6. 6.- Debekatuta dago ibilgailuak edo beste aparatu batzuk bide publikoan garbitzea edo konpontzea, baldin eta ez badira ibilgailua eramateko edo martxan jartzeko bide publikoan egin beharreko lanak.

6. 7.- Landareak ureztatzean, ezin dira isuriak, zipriztinak bide publikora botatu, hirugarrenei traba edo kalterik ez sortzeko.

6. 8. Arropa bustia eseki ahal izango da, betiere bizilagunen erkidegoan adostu bada eta Udalak baimendu badu, teknikari eskudunak txosten loteslea egin ostean.

6. 9. Debekatuta dago sua eta jarduera piroteknikoak egitea hala bide publikoan nola balkoietan, terrazetan eta abar. San Juan bezperako suak eta antzekoak egiteko, Udalak baimena eman beharko du adierazpen baten bitartez.

6. 10. Parkeetako, lorategietako, berdeguneetako eta bide publikoetako hiri-altzariak (bankuak, haur-jolasak, paperontziak, edukiontziak, iturriak, seinaleak, kale-argiak, eskulturak, markesinak...) garbi eta ondo mantendu behar dira.

7. artikulua. UDAL-GARBIKETA ERRAZTEKO ALDERDI OROKOR BATZUK

7. 1. Bide publikoa behar bezala garbitzeko presiozko ura erabili behar bada, lokaletako eta etxebizitzetako titularrak eta/edo han bizi direnak arduratuko dira beharrezko baliabideak jartzeaz, haien jabegoetan urik sartu ez dadin edo kalte-galerarik sortu ez dadin.

8. artikulua. HONDAKINEKIN, ZABOR-BILKETAREKIN, ZABORTEGIEKIN ETA HALAKOekin LOTUTAKO ZENBAIT ALDERDI

8. 1. Hondakin eta zaborren bilketarekin lotutako alderdiei dagokienez, ezarritako lekuak bete beharko dira, eta horretarako indarrean dagon araudiak ezarritako moduan eta ordutegian egin beharko dira lanak.

8. 2. Baimena ematen da bide publikoan geroago berrerabiltzeko utzitako objektuak eta gauzak aukeratzeko, betiere bilketa-zerbitzuen lana zailtzen ez badu eta bide publikoa zikintzen edo kaltetzen ez bada.

9. artikulua. OBRA EREMUETAKO GARBIKETA-BETEBEHARRAK.

9. 1. Edozein obratako kontratatzaileak neurriak hartuko ditu bide publikoa eta erabiltzaileak ez zikintzeko. Horrez gain, zikinen bat sortuz gero, garbitu egin beharko du eta hondakin-materialak ere eraman beharko ditu.

9. 2. Debekatuta dago obra-hondarrak hiri-hondakin solidoen edukiontzietan edo beste edozein leku edo eremutan uztea.

9. 3 Obra babestea

1. – Zikinkeriarik ez biltzeko, bide publikoa ukitzen duten edo uki dezaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak obra hori babestu egin beharko dute, inguruan elementu egokiak jarrita, obrako lurra eta soberako materialak baimendutako eremutik edo obra mugatzen duen perimetrotik kanpora isuri eta zabaldu ez daitezen.

2.- Debekatuta dago obraren perimetroaren barruan ez dagoen bide publikoan lurra, hondarrak, legarrak eta gainerako materialak biltzea, bai eta eusteko eta induskatzeko elementu mekanikoak eta gainerako tresna lagungarriak pilatzea ere, dagokion obra-lizentzian udalaren baimen espresa jasotzen ez bada, eta espazio hori beti garbi edukiko da.

3.- Lanegun bakoitza amaitzean bide publikoan eginiko lan-eremuak, zangak, kanalizazioak eta abar, garbi eta babestuak utziko dira, eta beharreko seinaleak jarriko zaizkie istripurik gerta ez dadin, gauerako balizaje elementuak barne.

9. 4.- Garbiketa-neurriak.



1.- Obraren esparruan zenbait neurri jarri behar dira (plataforma bat barne) bide publikora atera aurretik, ibilgailuen gurpilak eta galtzada zikin dezaketen gainerako elementuak garbitu ahal izateko.

2.- Prebentzio hori ez bada betetzen, dagokion zehapena jartzeaz gainera, Udaltzaingoak debekatu egingo die obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea.

9. 5.- Masaderak.

1.- Debekatuta dago masa-ibilgailuan hormigoia garraiatzea ez bazaio deskarga-ahoa ixten, hormigoi hori bide publikora ez isurtzeko behar den gailuaren bidez.

2.- Debekatuta dago oratze-ibilgailuak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.

3.- Aurreko bi atal horiek ez badira betetzen, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta erantzule subsidiarioa, berriz, obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularra. Isurtzen den hormigoia eta ukituriko bide publikoa garbitzeko betebeharra dute. Horrez gainera, dagozkien zehapenak jarri ahal izango zaizkie.

9. 6. Lurren eta obra-hondakinen garraioa.

1.- Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzeko ibilgailuek beharrezko baldintzak beteko dituzte bide publikora isurketarik egin ez dezaten.

2.- Istripu baten, iraulketa baten edo beste edozein gorabeheraren ondorioz karga bide publikora erori edo isurtzen bada, eta bideko segurtasunari begira arriskuak sor baditzaake, gidariek ahalik eta azkarren eman beharko diote horren berri Udaltzaingoari,



eta horrekin batera, eroritakoa bildu eta arrisku-eremutik kanpo eramaten hasiko dira, garbiketa-zerbitzuek eman diezaieketen laguntzaren zain. Nolanahi ere, ibilgailuen jabeek edo gidariek ordainduko dituzte gorabehera horiek sorturiko gastuak.

3.- Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenek ukituriko bide-zatia berehala garbitzeko betebeharra dute, karga- eta deskarga-lanen eta garraio-lanen ondorioz bide publikoa zikintzen bada.

4.- Era berean, edozein unetan kendu behar dituzte, eta Udal Agintariak eskatzen duten guztietan, baimendu gabeko lekuetan isuritako lurrak eta obra-hondakinak. Horrez gainera, dagozkien zehapenak jarri ahal izango zaizkie.

9.7.- **Obra-educiontzia.**

1.- Debehatuta dago edozein obra-hondakin bide publikoan uztea edo isurtzea, baita hiri-hondakin solidoen educiontzietako batean uztea ere.

2.- Obra-hondakinak eta gainerako hondakin-material guztiak Udalak baimendutako obra-educiontzietan utziko dira.

10. artikulua. KARGA- ETA DESKARGA-LANAK EGITEKO BETEBEHARRAK.

10. 1. Materiala garraiatzean eta karga- eta deskarga-lanak egitean ezingo da bide publikoa zikindu. Zerbait erori, isuri edo zikinduz gero, garraiolariak nahitaez eraman eta garbituko du.

10. 2. Sortutako zikinkeraren tamaina eta ezaugarriak ikusita udal-zerbitzuek uste badute garbiketa hori egiteko bitarteko bereziak behar direla, garbiketa-zerbitzuek egin ahal izango dituzte lan horiek, eta gero garraiolariari fakturatuko zaizkiogarbiketa-gastuak, kontuan izanik zigorrak ere izan daitezkeela.

11. artikulua. ELURTEETAKO BETEBEHARRAK

11. 1. Bizilagunen erkidego eta lokalen edo denden jabe bakoitzak bere fatxadako espaloiaren zatia garbitzen lagunduko du.

12. artikulua. ANIMALIEKIKO BETEBEHARRAK.

Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • <http://www.zumaia.eus>



12. 1. Debekatuta dago txakurren eta beste animalia batzuen kakak bide publikoan uztea (galtzada, espaloiak, pasealekuak, parkeak, plaza publikoak, berdeguneak...). Kakak poltsa batean sartu behar dira. Ondoren, poltsa hori itxi eta errefusen paperontzian edo edukiontzian botako da.

12. 2. Animalia batek bide publikoan pixa egin behar duenean, harekin doanak ahalegina egingo du isurbideetan, txorkoetan edo berdeguneetan egin dezan, eta ez fatxadetan edo bide-zoru gogorretan.

12. 3. Animaliekin jaiak egiten direnean, antolatzaileak garbitu beharko du sortzen den zikinkeria, ekintza amaitu bezain laster garbitu ere.

12. 4. Debekatuta dago animaliak bide publikoan garbitzea (galtzada, espaloiak, pasealekuak, parkeak, plaza publikoak, berdeguneak...)

12. 5. Debekatuta dago animaliei udal-iturrietatik zuzenean edaten ematea.

12. 6. Debekatuta dago bide publikoan janaria uztea, horretarako baimena dutenek izan ezik, Udalak onartutako jarraibideen edo hitzarmenen arabera jardungo baitute. Baimena dutenek pentsu lehorra emango diete beti animaliei jateko, eta ez dute inoiz janaria bide publikoan utziko animaliek nahi eran jan ez dezaten. Animaliek jan bezain laster, langile baimendunek kaletik kenduko dute soberan gelditzen den janaria.

13. artikulua. ELEMENTU PRIBATUEN GARBIKETA.

13. 1. Jabeek segurtasun-, osasun-, garbiketa- eta apaindura-baldintza egokietan mantendu behar dituzte higiezinetan agerian dauden zatiak: fatxadak, atariak, ateak, sarbideak, erakusleihoak, toldoak, leihoak, pertsianak, balkoiak, errotuluak, plakak...

13. 2. Higiezin partikularretan agerian dauden zatiak garbitzean ezingo zaie trabarik eragin hirugarrenei eta garbiketak eragindako hondakinak ezingo dira ez bide publikoan, ez hurbileko paperontzietan, ez kaino-zuloetan utzi. 13

14. artikulua. EREMU PRIBATUETAKO BETEBEHARRAK.

14. 1. Jabeak behartuta daude eremu pribatuak (urbanizazio pribatuak, barruko patioak, orube partikularrak, garajeak, sotoak...) segurtasun-, osasun-, garbiketa- eta apaindura publikoko egoera egokian mantentzera. Horretarako, hala behar izanez gero, behar diren tratamenduak egin beharko dituzte izurrien aurka, usoak habiak egin eta han jartzearen aurka, tratamenduak arratoien aurka, intsektuen aurka, tratamenduak sastrakak kentzeko...

14. 2. Udalaren eskumena da titulartasun publikoko zein pribatuko orubeak ikuskatzea eta subsidiarioko jabeen kargura garbitzea.

14. 3. Artikulu honetako lehen paragrafoan aurreikusitako egoera gertatzen ez bada edo jabeek jakinarazten ez badute, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, subsidiarioki eta indarrean dauden legezko mugekin. Horretarako, lursailera sartu ahal izango dute,



aurreko paragrafoan adierazitako helburuak betetze aldera, eta jabeen kargura ordainduko dira sortzen diren gastuak. Udalaren eskumena izango da jabetza pribatuko orubeetako hesia eraistea, interes publikoko arrazoiak direla-eta beharrezkoa bada jabetza horretara sartzeko hesia eraistea. Jabeen kargura ordainduko dira sortzen diren gastuak.

15. artikulua. JARDUERA PRIBATUEN ERAGINPEKO ESPAZIO PUBLIKOA GARBITZEKO BETEBEHARRAK

15. 1. Merkataritza- edo industria-jarduera pribatuen ondoko eremu publiko batean zikinkeria sortzen denean, titularrak garbi eta egoera onean eduki beharko du bere jardueraren ondorioz zikindu den espazio hori.

15. 2. Garbiketa ordubetean egin beharko du gehienez ere, establezimendua itxi ondoren. Hala ere, espazioa garbi izan behar du une oro.

15. 3. Jarduera mota dela-eta establezimenduak zikinkeria sor badezake, titularrek behar diren ontziak eta paperontziak jarri beharko dituzte. Betebehar hori bete ezean, Udalak behartu ahal izango ditu titularrak.

Establezimenduaren titularra arduratuko da ontzi horiek behar bezala mantentzeaz eta hondakinak era birziklatuan edukiontzietan uzteaz.

15. 4. Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatu behar da mahai-aulkien edo terrazen kasuan.

15. 5. Establezimenduak.

Erakusleiho, establezimendu, atari, salmenta-puntu eta antzekoen garbiketa arreta handiz egingo da bide publikoa ez zikintzeko, eta bertan dabiltzanei eragozpenik ez sortzeko orduetan egingo da.

Garbiketa horretatik etorritako hondakinak ezingo dira bide publikora edo hustubidera isuri edo bota.

Erabiltzen ez diren establezimendu itxietako jabeak arduratuko dira fatxadak kontserbazio- eta garbiketa-egoera onean mantentzeaz.

15. 6. Toldoak eta pertsianak.



Beheko solairuko lokaletako toldoak eta pertsianak kontserbazio- eta garbiketa-egoera onean mantenduko dira, eta berritu egingo dira kanpoko itxurak eskatzen duenean.

15. 7. Errotuluak, plakak eta gainerako bereizgarriak.

Bide publiko aldera jarrita dauden errotuluak, plakak eta bereizgarriak garbi edukiko dira eta hondatuak aldatu egingo dira.

Norabideen seinaleei dagokienez (trafikokoak, monumentuenak eta intereseko lekuenak, udal-zerbitzuenak eta abar alde batera utzita), izaera publikoa edo erabilera publikoa duen zerbitzuei dagozkienak soilik jarri ahal izango dira (osasun-establezimenduak, hotelak, parkingak, posta eta abar), udalaren baimena lortu ondoren eta hartan zehazten diren kopuruak eta irizpideak kontuan harturik.

16. artikulua. BIDE PUBLIKOETAKO GARBIKETA, HAINBAT EKINTZAREN ETA JARDUERAREN ONDOREN

16. 1. Bide publikoan egiten diren ekitaldien eta jardueren antolatzaileak arduratuko dira ekintza edo jarduera horien ondorioz sortzen den zikinkeriaz.

16. 2. Bide publikoan ekintzak, jarduerak eta okupazioa egiteko, baimena beharko da. Baimen horretan azalduko da eremua garbi utzi behar dela eta hondakinak bereizita bota behar direla zaborrontzira.

Zenbait kasutan, udalak fidantza bat eratzeko eskatu ahal izango du, aurreikusiz gero ekintzak aparteko garbiketa-lanak behar izan ditzakeela. Espazio publikoa erabat garbi gelditzen bada, itzuli egingo da fidantza. Horrela ez bada, fidantza horretatik kenduko da egin behar diren aparteko lan horien zenbatekoa.

16. 3. Jende asko bilduko badituzte, eta tabernak, txosnak eta halakoak instalatuko badira, ekitaldi publikoetan eta janaria eta/edo edariak eskainiko direnetan komun publikoak egon beharko dira, dagokion baimenean adierazten diren bezainbat eta bertan adierazten diren baldintzak betez. Halakorik egon ezean, antolakuntzak komun publiko mugikor homologatuak jarriko ditu. Udal-zerbitzu teknikoek adieraziko diete zenbat komun jarri eta non.



16. 4. Halaber, bide publikoan horrelako behin-behineko establezimenduak instalatzen direnean, aplikatu beharreko higiene- eta osasun-neurriak betetzeaz gain saneamenduzararako ur- eta ebakuazio-hargunea egon beharko dira. Horrez gain, behar diren neurriak hartu beharko dira hondakinak ohiko edukiontzietan eta ekitaldirako berariaz instalatutakoetan utzi daitezen.

17. artikulua. ANTOLAMENDUA ETA GARBIKETA KARTELAK, PANKARTAK, BANDERATXOAK, ESKU-PAPERAK, PEGATINAK, PINTADAK, GRAFITIAK ETA HORMA-IRUDIAK JARTZEAN.

17. 1. Definizioak..

a) KARTELAK:higiezinetan, altzarietan eta beste egitura batzuetan jar daitekeen euskarri batean dagoen edozein propaganda, iragarki edo aldarrikapen.

b) PANKARTAK:higiezinetan, altzarietan eta beste egitura batzuetan zintzilik jar daitekeen euskarri batean dagoen edozein propaganda, iragarki edo aldarrikapen handi.

c) BANDERATXOAK: zintzilikari gisa guztienezako elementu bati lotuta jartzen diren publizitate-iragarkiak. Gehienetan eraikinen zatietan edo hiri-altzarietan jartzen dira.

d) ESKU-PAPERAK ETA LIBURUXKAK:herritarrei bide publikoan ematen zaizkien paperzatiak edo antzeko materiala, edo edozein manifestazio publikotan edo pribatutan banatzen direnak.

e) PEGATINAK:aurpegietako batean material itsaskorra duten inprimakiak, zuzenean beste edozein elementu solidotan aplikatu daitezkeenak.

f) PINTADAK:bide publikoan, eraikinetako hormetan edo hiriko edozein egitura-elementutan edo altzairuetan eskuz idatzitakoak.

Kartelak, pankartak, banderatxoak, esku-paperak, pegatinak, pintadak eta horma-irudiak jartzeari edo egiteari lotutako guztiak eragiten die eremu publikoei eta pribatuei. Eremu pribatuetan, Udalak jardungo du, baldin eta pertsonen eta kolektiboen oinarritzko eskubideei kalte eragiten badiete edo errespetatzen ez badira. Irizpide horiek dagokion txosten tekniko loteslearen arabera balioetsiko dira, eta arloaren zedarrizapenaren arabera dagokion alor teknikoak egingo du txostena.

17. 2. Kartelak.

Udalak zenbait gune gaituko eta identifikatuko ditu udalerrian kartelak jarri ahal izateko (l. eranskina: gaitutako guneak).

Horretarako gaitutako guneetan, aurrez eskatu gabe jarri daitezke kartelak.

Gaitutako guneetatik kanpo jarri nahi badira kartelak, beharrezkoa izango da Udalean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea, hori egin ondoren, kartela jartzeko

Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • <http://www.zumaia.eus>



aukera izango dute. Horrek ez du eraginik zerbitzuen funtzionamenduari buruzko administrazio-kartelei (oharrak, bandoak, abisuak) eta eskelei dagokienez.

Honako kasu hauetan emango da kartelak gaitutako guneeetatik kanpo ezartzeko baimena:

a) Entzute handiko kultura-, arte- nahiz kirol-arloko gertakizunak, kontzertuak, ikuskizunak, erakusketak...

b) Salbuespenez, eman daiteke kartelak bide publikoan ezartzeko baimena aurretiaz aipatu gabeko beste kasu batzuetan.

Kartel guztiek errespetatu beharko dituzte irizpide hauek:

a) Ez izatea iraingarria, eta pertsona eta kolektiboen oinarrizko eskubideak errespetatzea. Irizpide horiek txosten tekniko lotesle baten arabera ebaluatuko dira. Gaiaren zedarritzea direla eta, dagokion sail teknikoak egingo du txosten hori.

b) Kartelak zinta itsasgarriz jarriko dira, inoiz ez kola erabiliz.

c) Kartelak ezingo dira ezarri indarraldian dauden beste kartel batzuen gainean.

d) Debekatuta dago horretarako baimendutako gunee edo kokalekuetan jarritako kartelak urratu, zikindu edo kentzea.

e) Gaitutako gunee bakoitzean, ekitaldi bakoitzari buruzko kartel bakarra jar daiteke soilik.

f) Ez da onartuko 70x50tik gorako neurria duen kartelik.

g) Paneletan kokatutako kartelak horretarako prestatutako guneeetatik kanpo badaude, berehala kenduko dira guneez gaitutatik.

e) Hauteskunde garaian panel bereziak egongo dira kanpainako kartelak jartzeko. Kartel horiek panel berezi hauetan eta udalak gaitutako tokietan agertzen badira, azken hauetatik kendu egingo dira.

Ikusiz gero aipatutako zenbait irizpide ez direla errespetatzen, kartelak kentzeari ekin diezaiolke Udalak.

Kartelak horretarako baimenik ez duen guneren batean jartzeko erantzukizunpeko adierazpena Udalean aurkeztu beharko du eta honako hauek adierazi behar dira:

a) Kartelak jartzea sustatzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoen identifikazio-datuak.

b) Kartelaren edukia eta neurriak.

c) Kokalekuak eta, jabetza pribatuak badira, partikularraren baimena.

d) Zenbat denboraz egongo diren itsatsita.

e) Ordenantzan jasotakoa betetzen duela.

Ez dira onartuko, inolaz ere, irangarriak, mehatxatzaileak eta Oinarrizko Eskubideen Deklarazioan araututakoaren kontrako edukia duten kartelik, pankartarik, pintadarik e.a.



Gaitutako guneen kasuan, Udalak kenduko ditu kartelak, aldiari behin, beharrezkoa den maiztasunaren arabera. Maiztasun hori panelean edo gaitutako gunean egongo da adierazita.

Gaitutako guneetatik kanpo dauden kartelak badira, partikularrak kenduko du kartela; bestela, udal-zerbitzuek kenduko dute, betearazte subsidiarioan, eta kartelak jarri dituenaren kargura izango dira gastuak.

17. 3. Pankartak.

Pankartak jartzeko Udalean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, hori egin ondoren, pankarta jartzeko aukera izango dute.

Honako kasu hauetan emango da pankartak horretarako gaitu diren guneetatik kanpo jartzeko baimena:

- a) Kultura-, arte- nahiz kirol-arloko gertakizunak, kontzertuak, ikuskizunak, erakusketak...
- b) Hauteskunde-kanpainak.
- c) Salbuespenez, eman daiteke pankartak bide publikoan ezartzeko baimena, aurretiaz aipatu ez diren beste kasu batzuetan.

Pankarta guztiek errespetatu beharko dituzte irizpide hauek:

- a) Iraingarria ez izatea, eta kolektiboen oinarrizko eskubideak errespetatzea. Irizpide horiek txosten tekniko lotesle baten arabera ebaluatuko dira. Gaiaren zirkunskripzioa dela eta, dagokion sail teknikoak egingo du txosten hori.
- b) Segurtasun arazoak tartean, ez da baimenik emango pankartak errepide ondoan, kale-argietan, zubietan, hesietan eta abarretan jartzeko.
- c) Ingurumena babesteko, ez da baimenik emango zuhaitzetan, zubietan, eta ibaitik hurbil dauden antzeko elementuetan pankartarik jartzeko.
- d) Eusteko erabiltzen diren elementuek ezingo dute, inondik ere, euskarri duten objektua kaltetu.
- e) Debehatuta dago horretarako baimendutako gune edo kokalekuetan jarritako pankartak urratu, zikindu edo kentzea.
- f) Pankartek zuloak izango dituzte, haizearen eragina arindu ahal izateko, eta, nolanki ere, zulatutako eremua ez da izango pankartaren azaleraren % 25 baino txikiagoa.
- g) Pankartak jartzeko gutxienezko altuera, punturik baxuenean neurtua, bost metro



izango da pankartak galtzada zeharkatzen badu, eta hiru metro espaloietan, pasealekuetan eta oinezkoentzako guneeetan.

Ikusiz gero aipatutako zenbait irizpide ez direla errespetatzen, kartelak kentzeari ekin diezaioke Udalak.

Pankartak horretarako baimenik ez duen guneren batean jartzeko Udalean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du eta honako hauek adierazi behar dira:

- a) Pankarta jartzea sustatzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoen identifikazio-datuak.
- b) Pankartaren edukia eta neurriak.
- c) Kokalekuak eta, jabetza pribatuak badira, partikularren baimena.
- d) Euste motaren zehaztapena, altuera, etab.
- e) Zenbat denboraz egongo diren jarrita.
- d) Ordenantzako jasotakoa betetzen duela.

Ez dira onartuko, inolaz ere, irangarriak, mehatxatzailek eta oinarizko eskubideen deklarazioan araututakoaren kontrako edukia duten kartelik, pankartarik, pintadarik e.a.

Pankartak interesdunek kenduko dituzte, iraungi eta hurrengo bi egunetan kendu ere; bestela, udal-zerbitzuek kenduko dituzte, betearazte subsidiarioan, jarri dutenen kargurako gastuekin.

Ondorio berak eragingo ditu baimenik gabeko edo baimendutakoarekin bat ez datozen pankartak jartzeak.

17. 4. **Banderatxoak.**

Banderatxoak jartzeko, Udalean erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, eta hori aurkeztuta berehala jartzeko aukera izango dute.

Banderatxoak horretarako baimenik ez duen guneren batean jartzeko erantzukizunpeko adierazpenak honako hauek jaso beharko ditu

- a) Banderatxoa jartzea sustatzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoen identifikazio-datuak.
- b) Helburua eta neurriak.
- c) Non jarriko den, eta, partikularren guneak badira, partikularren baimena.
- d) Euste motaren zehaztapena, altuera, etab.



- e) Zenbat denboraz egongo diren jarrita.
- f) Ordenantzan jasotakoa betetzen duela.

Sustatzaileari dagokio behin baimenean adierazitako epea amaitutakoan banderatxoak kentzeko ardura; bestela, udal-zerbitzuek kenduko dute, betearazte subsidiarioan, jarri dituenaren kargurako gastuekin.

17. 5. Esku-paperak.

Ez dago baimenduta inolako esku-paper, testu inprimatu edo antzeko materialik bide publikoan barreiatzea, botatzea edo ibilgailuetan jartzea.

Esku-paperak eskutik eskura banatu daitezke soilik.

17. 6. Pegatinak.

Debekatuta dago higiezinetan edo hiri-altzarietan pegatinak jartzea.

17. 7. Pintadak.

1.- Debekatuta dago pintadak egitea, hala bide publikoan nola eraikin publiko eta partikularretan, hiri-altzarietan, zuhaitzetan, estatueta, monumentuetan eta, oro har, hiriarren paisaiaren elementu oren gainean.

2.- Debekatuta dago, halaber, grafitiak eta marradurak egitea aurrez adierazitako eremuetan.

3.- Salbuetsita geratuko dira orube-hesietan, obren itxituretan, hormazainetan eta antzekoetan margotutako horma-irudiak, baldin eta aurrez lortua badute Udalaren lizentzia edo baimena, eta hor jasotako zehaztapenak betetzen badituzte.



Baimen-eskaerari, nolahi ere, higiezinaren jabearen adostasuna egiaztatuko duen dokumentazioa gehitu behar zaio nahitaez. Horrek ez du ezertan kaltetuko bidezko diren gainerako eskakizunak betetzeko beharra.

4.- Eraikin publiko batean edo hiri-altzarietako elementu batean pintadak egin, paperak jarri, kristalak marratu, kartelak itsatsi, edo berori narriatzen duen beste edozein ekintza egin bada, Udalak horren erantzukizuna duen enpresa edo pertsonari jasanarazi diezazkioke garbitzeko eta atontzeko lanei dagozkien fakturak.

5.- Udal-zerbitzuek berehala ezabatuko dituzte pintadak, eta egin dituenaren kargurako izango dira gastuak.

6.- Udala salbuetsita geratuko da eraikinean garbiketaren ondorioz kalteak eragin badira, baldin eta lanak behar bezala gainbegiratu badira, eta udal-zerbitzuek eskura dituzten bitartekoen bidez egin badira.

17. 8. **Horma-irudiak.**

Horma-irudi artistikoak margotzeko, Udalaren baimena behar da. Orube-hesietan, obren itxituretan, hormetan, hormazainetan eta antzekoetan margotu daitezke.

Horma-irudiak margotzeko eskaeran honako hauek adierazi behar dira:

a) Horma-irudia egitea sustatzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoen identifikazio-datuak.

b) Horma-irudiaren zirriborroa eta neurriak.

c) Kokalekuak eta, jabetza pribatuak badira, partikularren baimena.

d) Adierazpen artistiko liberako guneak aldizka garbituko dira, eta gunean bertan adieraziko da aldizkakotasun hori. Horrek ez du ezertan kaltetzen Udalak ahalmena duela berau garbitzeko, begirunerik gabeko arte-adierazpenak hautematen baditu, edo pertsona eta kolektiboen oinarrizko eskubideak errespetatzen ez dituztenak. Irizpide horiek txosten tekniko lotesle baten arabera ebaluatuko dira. Gaiaren zirkunskripzioa dela eta, dagokion sail teknikoak egingo du txosten hori.

17. 9. **Obren itxituretako publizitatea.**

Obren itxituretan publizitatea jartzeko, Udalaren baimena behar da, eta Udalaren ordenantza fiskaletan ezarritakoa bete.

17. 10. **Eraikin bereziak.**

Foruen Enparantza, z/g • Tel.: 943 86 50 25 • Fax: 943 86 24 56 20750 ZUMAIA • <http://www.zumaia.eus>



Historiko-artistikotzat katalogatutako eraikinetan, baita enblematikoak direnetan ere, ez da onartuko ezein iragarki motarik, eta ezingo da erakutsi kartel, banderatzko nahiz errotulurik, salbu eta eraikinon ezaugarrien berri emateko badira, eraikinean gauzatzen diren jardueri buruzkoak badira, edo horiek moldatzeko edo birgaitzeko lanei buruzkoak badira.

17. 11. Lurzoru urbanizaezinaren babesa.

Zumaia Plangintza Arau Subsidiarioetan babes berezikotzat kalifikatutako gunetan, modalitate guzti-guztietan (naturaren edo paisaiaren interesagatikoak, ibai eta errekek, gailurrak, marearteko zabalgunek eta kostaldeko itsaslabarrak, etab.), debekatuta daude kartel, pankarta, banderatzko, esku-paper eta pegatina guztiak. Debekua ez betetzea arau-hauste oso larria da, eta dagokion zehapena eragingo du.

Salbuespenez, eman daiteke seinalezatzeko bitartekoak eta gailuak jartzeko baimena, Udalak behar bezala baimendu baditu, eta babestutako naturagunea ondo erabiltzeko beharrezko badira.

18. artikulua. KANPATZEA.

1.- Hiriguneko lursail publikoetan ezingo da kanpatu, ezta kanpin-dendarik edo horretarako gaitutako ibilgailurik ezarri ere, ez badute horretarako lizentzia edo baimenik. Era berean, ezingo da kozinatu edo aulki-mahairik zabaldu, halakorik behar duten jardueretarako izan ezik, eta baldin eta Udalaren aurretiazko baimena lortu bada soilik.

Gune urbanizaezinetan, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean ezarritakoari (ekainaren 30eko 2/2006) jarraitu behar zaio.

2.- Agintaritzaren agenteek jokabide hori bertan behera uzteko eskatuko diete bide publikoa behar ez bezala okupatzen duten kanpin-denda, ibilgailu edo edozein material motaren jabeei edo erabiltzaileei. Horrek ez du esan nahi ez dutenik dagokion salaketa jarriko. Ezezkoa jasotzen badute, edo jabe edo erabiltzaileak aurkitu ezin



badituzte, Agintaritzaren agenteek beharrezko bitartekoak erabili ahal izango dituzte horiek berehala kentzeko, eta jabeak arduratuko dira eragindako kostuez.

Arau orokor gisa, titularrek ez badute hala egiten, udal-zerbitzuek ekingo diote dagokion garbiketa-lanari, eta titularrei jasanaraziko zaizkie kostuak.

II. TITULUA.- BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ETA ERABILERA

19. artikulua. IRIZPIDE OROKORRA.

Bide publikoa erabiltzea, gainerako herritarrei erabilera mugatuko edo ukatuko dien edozein ekintza egiteko, Udalaren baimenaren edo emakidaren mende egongo da.

Bide publikoaren erabilera horiek zerbitzu emateko badira, jarraian adierazten den baimen-araubidearen mende egongo dira, baldin eta erabilera ez bada kaleko salmentatzat jotzen udal-ordenantza espezifikokan; hala izanez gero, azken horretan ezarritakoari jarraitu behar zaio.

Araubide orokorra banan-banako baimena izango da, salbu eta, baliabide natural urriak edo eragozpen teknikoak direla-eta, baimen kopurua mugatu behar bada; hala izanez gero, emakida-prozedurak bermatuko du publikotasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak betetzen direla.

Baliabide naturalak ez badira urriak eta ez badago baimen kopurua mugatu beharra eragingo duen eragozpen teknikorik, banan-banako baimenak bermatu beharko du, iraupena zehaztean, jabari publikoa betetzen dela eta eremu publikoen erabilera desberdinak bateragarriak direla.

20. artikulua. ERABILERA KOMUN BEREZIA.



1.- Jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezia baimen edo lizentzia ematearen mende geratuko da, baldin eta ez badakar berekin aipatutako jabari publikoaren eraldaketa. Baimen edo lizentzia horiek ezeztatu daitezke interes publikoa dela kausa, edo, hala badagokio, interes orokorraren premia larriak direla kausa; horrek ez du sortuko kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik interesdunaren alde.

2.- Organo eskudunak zilegi du jabari publikoa okupatzeko baimenik ez ematea trafikoa, bide-segurtasuna, trazatua, egoera, obra publikoak edo interes orokorreko beste edozein arrazoi dela-eta.

3.- Erabilerak jabari publikoko ondasunak eraldatzea edo aldatzea badakar, edo zerbitzu publikoen eraginpeko ondasunei buruzkoa bada, administrazioaren emakidaren mendekoa izango da.

4.- Zortasun publikoko jabari pribatuko ondasunak okupatzeko lizentzia emateko, okupazio-lizentzien eskatzaileek jabearen edo jabe-komunitatearen baimena aurkeztu beharko dute dagokion eskabidearekin batera. Eskakizun hori bete ezean ez da izapidetuko eskabide hori.

5.- Erabilera pribatiboak eta erabilera komun bereziek dagozkion tasak ordaintzeko betebeharra eragingo dute.

6.- Eskatzaile batek baino gehiagok eskatzen badu bide publikoaren okupazio bera, hori ebazteko aintzat hartuko dira publikotasun-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, gardentasun- eta norgehiagoka-printzipioak, baita deialdiaren oinarrietan jasotako gainerako merezimendu eta eskakizunak ere.

21. artikulua. ESTETIKA.

Bide publikoan ezarritako elementuek Udalak ingurunerako ezarritako irudien irizpideei jarraitu beharko diete, baita segurtasun-arloan aplikatzen zaizkien gainerako arau guztiei ere. Lizentziaren edo emakidaren jabeak mantendu behar ditu elementu horiek



eta horien ingurunea erabilera- eta garbitasun-baldintza ezin hobeetan, gune horretan dauden beste hiri-altzariak, zuhaitzak eta landareak errespetatuz.

22. artikulua. ERABILERA OROKORRA.

Aurreko artikuluen ondorioetarako, honako hau ulertuko da erabilera orokortzat – aurretiaz lizentzia behar gabe denbora batez okupatu daitekeena–, baldin eta eraikinen fatxada-lerroa gainditzen ez badu: establezimenduen kanpoaldean erakustokiak jartzea, 19. artikuluan ezarritako arauak betez.

Hala eta guztiz ere, organo eskudunak eman dezake aipatutako elementu horiek kentzeko agindua, baldin eta horiek ez badituzte betetzen hiri-altzariei buruzko udal-irizpideak, edo publikoa espaloietan gelditzea eragiten badute, mugimendua edo bide publikoaren erabilera normala eragozteko moduan.

23. artikulua. MAKINAK ETA OBJEKTUAK BIDE PUBLIKOAN.

Bide publikoan edo handik iristeko moduko guneetan jolas-makinak, kontsumo-produktuak saltzeko makinak eta beste objektu osagarri batzuk jartzeko, 19. artikuluan ezarritako araubideari men egin behar zaio.

Honako hau ulertuko da objektu osagarritzat: ostalaritzako jarduerarako legez onartutakoak, esaterako, mahaiak, kupelak, berogailuak, etab.

Edozein motako jolas-makinak, kontsumo-produktuak saltzeko makinak eta beste objektu osagarriak bide publikoan jartzeko baimena eman daiteke, 19. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta ezertan kaltetu gabe sektoreari dagokion legedian xedatutakoak, baldin eta honako arau hauek betetzen badituzte:



1.- Jolas-makinak, produktuak saltzekoak eta objektu osagarriak behar bezala margotuta edo korrosioaren aurka behar bezala babestuta egongo dira, eta garbitasun-egoera ezin hobean; lekuz aldatzeko gurpilak edo mekanismoak izango dituzte, eta behar beste finkagailu, erabili bitartean mugitzen edo iraultzen ez direla bermatzeko; ez dute ertz zorrotzik izango, eta finkagailuak ezingo dira lurrean ezarri makina nahiz objektuon egonkortasuna bermatzeko.

2.- Jolas-makinak, produktuak saltzekoak eta objektu osagarriak ezartzeko, 3 metrotik gorako zabalera duten espaloietan soilik emango da baimena, behin albo batera utzita bertan ezarritako hiri-altzariak, halako moldez non oinezkoak egoki zirkulatzeko modu izango baitute. Zabalera txikiagokoetarako ere baimenduko da, baldin eta bi metroko igarobidea bermatzen bada, behin hiri-altzariak bazter utzita.

3.- Ezarriko diren elementuek gehienez ere ezarrita dauden espaloien herena hartuko dute zabalera, eta betiere metro bat baino gutxiago.

4.- Jolas-makinak, produktuak saltzekoak eta objektu osagarriak eraikinaren fatxadari atxikita ezarriko dira, eta ez dute gaindituko establezimenduak hartutako fatxada-zatiaren luzera, behin establezimenduaren sarrerari dagokion tarte kenduta. Horrez gain, ezingo dira jarduera bererako bost elementu baino gehiago ezarri.

5.- Elementuok establezimenduaren kanpoaldean egon daitezke, ostalaritza-jardueretarako ezarritako ordutegien muga-barruan. Hori amaitutakoan, nahitaez kendu beharko dira, eta garbi utzi beharko da okupatutako bide publikoa.

Udalak beretzat gordetzen du artikulua honetan aipatutako elementuak jartzeko baimenik ez emateko ahalmena, Udalaren zerbitzu teknikoaren txostena jaso ondoren, onura orokorraren ondorioz baldintza bereziak suertatzen badira.

Dagokion baimen-araubidea betetzen ez badu, bide publikotik kendu daiteke bertan ezarritako edozein objektu, ondasun edo material, eta agintari eskudunak zehaztutako nonbait utzi. Horrek ez du eragotziko okupazioaren egileari dagokion zehapena ezartzea. Lekualdaketa onduko gastuak objektuon erantzuleei, jabeei edo titularrei jasanarazi dakizkieke.

24. artikulua. ERAKUSTOKIAK BIDE PUBLIKOAN.

Eman daiteke produktuak bide publikoan erakusteko asmoz erakustokiak jartzeko baimena, 19. artikuluan ezarritako baldintzetan, eta ezertan kaltetu gabe sektoreari dagokion legedian xedatutakoak, baldin eta honako arau hauei jarraitzen bazaie:

1.- Erakusgai jarritako produktuak ezingo dira establezimenduaren kanpoaldean saldu. Debehatuta dago bide publikoan pisatzeko, neurtzeko edo kobratzeko elementuak ezartzea.

2.- Erakustokiak behar bezala margotuta edo korrosioaren aurka behar bezala babestuta egongo dira, eta garbitasun-egoera ezin hobean; lekuz aldatzeko gurpilak izango dituzte, eta behar beste finkagailu, erabili bitartean mugitzen edo iraultzen ez direla bermatzeko; ez dute ertz zorrotzik izango, eta finkagailuak ezingo dira lurrian ezari erakustokien egonkortasuna bermatzeko.

3.- Erakustokiak ezartzeko, bi metrotik gorako espaloietan soilik emango da baimena, bertan ezarritako hiri-altzariak kontatu gabe, oinezkoen zirkulazio egokia bermatzeko moduan.

4.- Ezarriko diren elementuek, gehienez ere, ezarrita dauden espaloien herena hartuko dute zabaleran, eta betiere metro bat baino gutxiago.

5.- Erakustokiak eraikinaren fatxadara atxikita ezarriko dira, eta ezarpenaren luzerak ezingo du gainditu establezimenduak hartutako fatxada-zatiaren luzera, behin albo batera utzita establezimenduaren sarrerari dagokion tartea.

6.- Erakustokiak merkataritzako ordutegiak iraun bitartean egon daitezke establezimenduaren kanpoaldean. Hori amaitutakoan, nahitaez kendu beharko dira, eta garbi utzi beharko da okupatutako bide publikoa.



7.- Erakusgai jarritako produktuak jatekoak badira, lurretik 75 cm-ra jarri behar dira gutxienez; gainerako produktuak, berriz, 60 cm-ra.

8.- Erakustokietan nahi beste apal jar daitezke, lurretik 1,75 metroko altuerara arte gehienez; erakustokiak eta salgaiak, batera neurtuta, ezingo dira izan bi metro luze baino garaiago.

Udalak beretzat gordetzen du erakustokiak jartzeko baimenik ez emateko ahalmena, Udalaren zerbitzu teknikoen txostena jaso ondoren, onura orokorraren ondoriozko premia larririk suertatzen bada.

25. artikulua. OBRAK, KARGA- ETA DESKARGA-HODIAK ETA EDUKIONTZIAK BABESTEKO HESIAK.

1. Nahitaez jarri behar dira hesiak eraikinak eraikitzeo, kanpoaldeko lanetarako, eraispenetarako eta bide publikoa barrualdeko obrak egiteko materialekin okupatzeko. Ezin badira jarri, igarotze-premiak edo bestelako inguruabar batzuk direla-eta, aldamiok edo aldamiok esekiak jarriko dira horien orde. Espaloian libre geratutako eremua ezingo da izan, inola ere, 0,80 metrotik beherakoa. Ez bada posible, behar bezala babestutako eta seinaleztatutako oholen eta pasabideen bitartez emango da igarotzeko modua, behin-behinean estaliz irekitako zangak, hala behar bada. Nolanahi ere, enpresa eraikitzaileak behar diren neurriak hartuko ditu oinezko nahiz ibilgailuen mugikortasuna eta segurtasuna bermatzeko.

Gune horietan edukiontzirik badago, Urola Kostako mankomunitateari jakinaraziko zaio, behin-behinean lekuz aldatu dezan.

2.- Aurreko zenbakian aipatutako eraikuntzetan eta obretan, beharrezko izango da, halaber, materialak eta obra-hondakinak kargatzeko eta deskargatzeko hodiak ezartzea, baita neurri egokiak hartzea ere, ez dadin kaltetu ez pertsonarik ez objekturik, eta ez dadin zaildu edo eragotzi zirkulazioa edo bide publikoaren erabilera normala. Nolanahi ere, obra babesteko hesiak edo elementuak behar besteko altuera eta edukiera izango du, materialak eta obra-hondakinak espaloi eta galtzadetara erortzea eragozteko.

Era berean, fatxadak eta halakoak garbitzen badira, nahitaez zuzendu behar dira hustubideak estoldetara.

3.- Posible den guztietan, aurrez fabrikatutako materialekin ezarriko dira hesiak. Ezingo da inola ere erabili obrako mailazoa. Hala ere, kasu jakin batzuetan, udal-administrazioak eraikitzaileak behartu ditzake aipatutako materialak nahitaez erabiltzera.

Oinezko bidea mugatzen duten hesi metalikoak kontserbazio-egoera ezin hobean egon behar dira.

4.- Hesiek ezingo dute hartu baimen-araubidean ezarritakoa baino bide publikoko azalera handiagoa. Arau-hausterik bada, ezertan kaltetu gabe bidezko diren zehapenak, udal-administrazioak hesia behera botatzera eta baimendutako mugen barruan beste bat eraikitzen behartuko du obraren kontratista; ez badu hala egiten, udal-zerbitzuek egingo dute, obraren kontratistaren kargura. Obren jabea izango da aurreko zenbakian ezarritako betebeharren erantzule.

Bide publikoan jarritako oztupoak seinaleztatu egin behar dira.

5.- Lizenziaren eskatzaileak hesien eta karga- eta deskarga-hodien kokalekua eta neurria adierazi beharko dizkio udal-administrazioari.

6.- Obra guztiek eduki behar dute errotulu bat, honako hauek adierazten dituenak: Udalaren lizentzia edo baimena, lizenziaren jabearen identifikazioa, obraren lizenziaren xedea eta hasiera eta amaierako datak, eta laneko ordutegia.

7.- Bide publikoan eta espaloietan gutxieneko igarobidea eragozten duten merkantzia, objektu edo elementuak jartzen badira, artikuluko honetako 1. zenbakian zehaztu den moduan, udal-zerbitzuek kendu egin ditzakete.



8.- Edukiontzia, arau orokor gisa, espaloietan jarri behar dira, zuhaitzen txorkoen artean, halakorik bada, eta gutxienez 1,50 m-ko igarobidea utziko da; edo baimendutako aparkalekuetan jarri daitezke, eremu horretatik ez ateratzeko moduan eta ibilgailuen zirkulazio askea ez eragozteko moduan. Interesdunak behar bezala seinaleztatu beharko du edukiontzia.

Edukiontzia utzi eta jasotzeko maniobrak Zirkulazio Kodean aurreikusitako moduan egin beharko dira, trafikoa eragotzi gabe; guztiz debekatuta dago edukiontzia 08:00etatik 14:00etara eta 16:00tik 20:00etara jartzea edo jasotzea.

9.- Bide publikoa kamioi gaineko garabiek edo antzekoek okupatuko badute, edo bide publikoan aldarmioak ezarriko badira, Udalaren baimena edo lizentzia eduki beharko da.

Udal-lizentzia edo -baimena lortu ondoren, honako betebeharrak izango ditu baimenduak:

Galtzadan oztopoa behar bezala seinaleztatuko du, baita dauden ibilgailuen eta oinezkoen trafikoa ere.

b) Behar diren segurtasun-neurri eta ardurak guztiak hartuko ditu zerbitzua egiten den bitartean pertsonen eta gauzen osotasun fisiko babesteko. Lizentziaren titularrak izango da horrelako kasuetan gerta litezkeen kalteen erantzulea.

10.- Aurretik jakin ezin diren zirkunstantziengatik harri-morroiloak, teilak edo etxe, lokal edo, oro har, eraikinetako beste zatiak bide publikora erortzen badira, eta pertsona eta gauzentzako arrisku larria sortzen badute, Udalak, titularrak ezin badu, beharrezko prebentzio-neurriak jarriko ditu bide publikoen erabiltzaileen segurtasuna ziurtatzeko.

Berehala, Udalak titularrari, administratzaileari edo komunitateko lehendakariari edo jabetzaren arduradunari eskatuko dio premiaz eta gehienez ere hamar eguneko epean, aurreko atalean aipatutako prebentzio-neurriak har ditzan eta ahalik eta azkarren zuzen ditzan dauden akats horiek.

Hamar egun horiek igaro ondoren, ez badira eskatutako neurriak hartu, Udalak bide publikoaren okupazio gisa hartuko du egoera, eta dagokion tramitazioa egiteko eta beharrezko tasak ordaintzeko eskatu ahal izango du.

26. artikulua. FILMEN FILMAKETA BIDE PUBLIKOAN.

Bide publikoetan egiten diren filmaketak lizentzian edo baimenean zehaztutako leku, ordutegi eta baldintzetan egingo dira.

27. artikulua. ETXE-ALDAKETAK.

Etxe-aldaketek eragiten dituzten karga- eta deskarga-lanak bide publikoan egiten badira, dagokion udal-lizentzia edo -baimena lortu beharko da derrigor, zerbitzu hori emateko legez gaitutako pertsona fisiko edo juridikoek eskatuta. Lizentzia hori lana egin behar den eguna baino gutxienez 15 lanegun lehenago eskatuko da, eta baimenean zehaztutako baldintza guztiak beteko dira lan hori egiteko momentuan.

Ondorio horietarako, etxe-aldaketa izango da Zumaia udalerraren barnean altzariak eta gainerako etxetresnak lekuz aldatu edo garraiatzea, baita bulegoko materialak garraiatzea ere (altzariak, dokumentuak eta abar), baldin eta lan horietarako 3. 500 kg edo gehiagoko pisu baimendu gorenaren duten ibilgailuak erabili behar badira, edo pisua txikiagoa izan arren, karga eta deskargarako kanpoko baliabide mekanikoak erabili behar badira (baliabide horiek eskuko poleak edo polea mekanikoak izan daitezke), edo lekualdatzearen lan osagarriak eragiten dituenen.

III. TITULUA- JOKABIDE ZIBIKOA BIDE PUBLIKOAN

28. artikulua.- JOKABIDE-ARAU OROKORRAK BIDE PUBLIKOAN.

1.- Herritarrek bide eta espazio publikoak askatasun osoz erabiltzeko eskubidea dute, eta askatasun hori errespetatu egin behar zaie. Ondasun publikoen erabilerari buruzko xedapenek eta beste pertsonak eta ondasun pribatuak errespetatzeko beharrak mugatzen dute gizalegez erabili behar den eskubide hori.

Arau-haustea izango da segurtasun kolektiboa urratzea edo bide publikoetan, espazio edo establezimendu publikoetan nahasmenduak sortzea, hori arau-hauste penala ez denean.

2.- Inork ere ezin du, bide publikoan duen jokabidearengatik, gainerako pertsonen eskubide eta ekintzarako askatasuna gutxietsi, ezin ditu oro har onartzen diren usteak eta bizikidetzaren arauak iraindu, eta ez dira jokabide exhibizionistak onartuko.

3.- Ezin da auzokoen atseden hartu duen zaratarik egin, ez eta gaez iskanbiletan parte hartu, edo gaez aisiarako lokaletatik zarata handia eginez atera.

4.- Ibilgailu motordunek, eta bereziki ziklomotorrek eta motozikletek, eragindako zaratei dagokienez, indarreko araudian xedaturikoa beteko da, alor horretan ezar daitezkeen arau-hauste eta zigorrak barne.

5.- Herritarrek inola ere ez dute indarkeria edo bazterkeria dakarren, edo indarkeria fisikoa edo morala eragiten duen jarduerarik egingo bide publikoan.

29. artikulua. ELKARTASUNA BIDE PUBLIKOAN.



1.- Udalak herritarren jokabide solidarioa sustatuko du bide publikoan, bidean ibili edo orientatzeko laguntza behar duten pertsoneri, eta istripua izan duten edo arriskuan dauden pertsoneri laguntzeko. Era berean, igarotzerakoan edo altzari publikoak erabiltzerakoan behar handiena duten pertsoneri lehenetsua emateko ohitura bultzatuko da, baita beste elkartasun- eta hezkuntza-jokaera batzuk ere.

2.- Haurrak edo pertsona ezinduak galduta, edo fisikoki nahiz psikikoki gaizki dauden pertsonak aurkitzen dituzten pertsona guztiek agintaritzaren agenteei jakinaraziko diete, eta horiek arduratuko dira pertsona horiek babesteaz eta haien tutoretza eta arduraren inguruan itzultzeaz.

30. artikulua. ONDASUN PUBLIKOEN ERABILERA.

Duten izaeraren arabera erabili behar dira ondasun publikoak, egoki eta behar bezala betiere, eta gainerako herritarrek ere ondasun horiek erabiltzeko duten eskubidea errespetatuz.

31. artikulua. AGINTARITZAREN AGENTEEN ETA UDAL-ZERBITZUEN JOKABIDEA.

1.- Agintaritzaren agenteek eta udal-zerbitzuek une oro zuzen eta gizalegez tratatuko dituzte herritarrak, eta behar dutenei laguntza eman eta babestuko dituzte. Beren esku-hartzeetan beharrezko informazio guztia emango dute beren ekintzen arrazoia eta helburuen inguruan.

2.- Agintaritzaren agenteek egokitzat hartzen dituzten aginduak eta jarraibideak eman ahal izango dizkiete herritarrei, Ordenantza honetan jasotako zehaztapenak beteko direla ziurtatzeko.



Arau-haustea izango da agintaritzaren edo bere agenteen aginduak ez betetzea, agindu horiek Ordenantza honetan edo indarrean dagoen beste legeria batean xedaturikoa zuzen aplikatuta ematen direnean, eta arau-hauste penala ez denean.

3.- Kasu larriak direnean eta 1. atalaren arabera jardun ondoren, pertsonen gainean agintea erabili behar bada, hertsiki ezinbestekoak diren indar-ekintzak soilik burutuko dira, ukituriko pertsonen duintasuna erabat errespetatuz.

4.- Fabrika, lokal edo establezimenduen titularrek edo arduradunek, leku horietan sartzeko erraztasunak emango dizkiete Udaleko ikuskapen-zerbitzuei, Ordenantza honetan edo udal-eskumeneko beste araudietan xedaturikoaren arabera ikuskapen edo kontrolak egin ahal izateko.

32. artikulua. ALTZARI EDO ESPAZIO PUBLIKOAK BABESTEIA.

1.- Udalerrian dauden hiri-altzariak egoki eta behar bezala erabiltzeko obligazioa dute herritar guztiek; altzari horiek errespetatu egin behar dira, haien kontserbazio eta erabilera arrunterako hondamenik sortu gabe.

2.- Debekatuta dago hiri-altzariak eta espazio publikoak zikindu eta hondatzen dituzten edo honda ditzaketen ekintzak egitea, eta bereziki, honako ekintza hauek:

a) Eserlekuak beren erabilera naturalaren aurka erabiltzea; ezin dira zapaldu, ezin dira dauden lekuetatik kendu, ez hautsi, ez zikindu eta, oro har, ezin da haien erabilera kaltetu edo kontserbazioa hondatuko duen ezer egin.

b) Debekatuta dago jolaserako tresnak modu txarrean eta kalte egin edo hausteko moduan erabiltzea, haurrentzako jolasak ezin dituzte helduek edo adin txikikoak izan arren jolasean jartzen duen adina gainditzen dutenek erabili. Jolas bakoitzak plaka bat izango du, eta bertan agertuko da hori erabiltzeko adin egokia.

c) Debekatuta dago zaborrak, pipak, txikleak edo paperak zeregin horretarako dauden paperontzietatik kanpo botatzea.

d) Debekatuta dago paperontziak irauli edo beren tokietatik ateratzea, baita haien itxura eta osotasuna honda dezaketen beste ekintza guztiak ere.



e) Debehatuta dago hiri-hondakinen paperontzi eta edukiontzietan tresna edo objektu arriskutsuak botatzea.

Ondorio horietarako, tresna edo objektu arriskutsuak izango dira pertsoneri kalte egin diezaieketen guztiak, hauxe da, animaliak eta animalien hondakinak, xiringak eta substantzia estupefazienteak kontsumitzeko tresnak, osasun-arretan erabilitako materialak gaixotasunak kutsatu edo zabaldu ditzaketenean, eta era guztietako droga toxikoak, estupefazienteak eta lehertu daitezkeen edo sua piztu dezaketzen guztiak.

f) Debehatuta dago iturri publikoetako tutuak, kanilak eta gainerako elementuak manipulatzeko haien funtzionamendu normaletik kanpo.

Dekorazio-iturrietan debehatuta dago zikintzea, eta bertako ura garbitu, bainatu edo barruan sartzeko erabiltzea, eta debehatuta dago iturri horietara edozein detergente, koloragarri edo produktu kimiko botatzea.

g) Debehatuta dago herrian dauden zuhaitz, kale-argi, estatua, seinale eta gainerako apaingarriak kaltetuko dituen edozein ekintza edo manipulazio, baita elementu horiek hondatzen dituzten ekintzak ere.

h) Debehatuta dago animaliei bide publikoko gizakien kontsumorako iturrietatik zuzenean edaten uztea.

i) Debehatuta dago iturri edo urmaeletan edo bide publikoan usain txarrak eta eragozpenak sortzen dituzten substantziak botatzea.

33. artikulua. BERARIAZKO DEBEKUAK.

1.- Debehatuta dago bide publikoan kirol- edo joko-jarduerak egitea, pertsona edo ondasunei kalteak edo herritarrei eragozpenak eragiteko moduko objektuak edo tresnak erabiltzen badira, horretarako baimendutako leku eta eremuetan eta baimendutako ordutegietan izan ezik.

2.- Debehatuta dago fatxadetatik ateratzen diren loreontziak eta abar jartzea, eraikineko berezko elementuek behar bezala eusten ez dietetan.



3.- Auzokoen atsedena errespetatzeko eta etxean bizikidetza arrunta nahasiko duen zaratarik ez egiteko betebeharra dute herritar guztiek.

Etxebizitzaren artean auzokoen bizikidetza-zaratekin sortzen dituzten eragozpenek Jabetza Horizontalaren Legean dute beren erregulazio juridikoa, baina alderdi arruntago batzuk Ordenantza honen aplikazio-esparruan sartzen dira modu orokorrean, kasu horietan sorturik kontaminazio akustikoa onartzeko moduko mugen barnean egon dadin bertako erabileren arabera.

Arrazoi horrengatik, honako prebentzio hauek zehazten dira, 22:00etatik 08:00ak arteko ordutegiari eta harrera-puntuan 30 dBA-ko (LpA_{fmax}) soinu-mugari dagozkionak guztiak ere:

a) Etxe partikularren barnean eta eskaileretan, patioetan eta, oro har, etxebizitzetako erabilera komunitarioko espazioetan ezin da ozenegi abestu edo hitz egin gaueko 00:00etatik 07:00etara bitarte.

b) Ezin dira ateak eta leihoak zalapartan itxi, bereziki arestian aipaturiko ordutegi horretan.

c) Etxe barruan ezin da beste edozein modutako zaratarik egin, bereziki gaueko 22:00etatik goizeko 08:00ak arteko ordutegian, etxean konponketa material edo mekanikoak, altzari edo etxetresna elektrikoak aldaketak egin behar direnean edo beste edozein arrazoiengatik. Nolanahi ere, horiek ezin izango dituzte 30 dB-ak gainditu harrera-puntuan.

e) Auzokoek ezin izango dute, gaueko 22:00etatik goizeko 07:00ak arte, patio, terraza, galeria, balkoi eta beste espazio itxi eta irekietan, beren soinu, oihu edo kantuekin aldamenekoen atsedena hauts dezakeen animaliarik utzi.

Edozein ordutan bere jabe edo arduradunek erretiratu egin beharko dituzte eraikineko gainerako biztanleei edo ondoko eraikinetakoei, modu nabarmenean, eragozpenak sortzen dizkietenean.

Obra lanei dagokionez:

a) Bide publikoan zein etxebizitza barruan eraikitzeko, konpontzeko zein botatzeko egin beharreko lanak edo obrak, lan egunetan goizeko 8:30etatik arratsaldeko 20:00etara egingo dira, igande eta jai egunak izan ezik. Larunbatetan 9:00etatik 13:00etara egingo dira. Hala ere, eta kasu guztietan, auzokideengan erasanik txikiena eragiteko neurriak hartuko dira.



b) Udalak, aurreko atalean zehaztutako ordutegitik kanpo lanak egiteko ez-ohiko baimenak eskainiko ditu, betiere, beharra, arriskua edo izaera bereziagatik egunez egiteko aukerari ez dagoenean.

c) Oben iraupena 6 hilabete baino gehiagokoa izango dela aurreikusten denean, inpaktu akustikoaren ikerketa egin beharko da, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak erabakitzeko. Eragin akustikoen gaineko ikerketa horrek, neurri zuzentzaileek ekarriko dituzten onura akustikoen azterketa egin beharko du, bereziki eremu akustikoetan zein erasanari sensible diren zarata mailaren murrizketa zehaztuaz.

34. artikulua. DROGA ETA EDARI ALKOHOLDUNEN KONTSUMOA. ARMA ETA TRESNA ARRISKUTSUAK.

1.- Drogen kontsumoan, eta arma eta tresna arriskutsuak eraman eta erabiltzean, alor horretan indarrean dagoen araudian jasotako arauak beteko dira.

2.- Udaltzaingoak berehala konfiskatuko ditu legez kanpoko drogak, substantzia estupefazianteak, substantzia psikotropikoak eta arma eta tresna arriskutsuak.

3.- Bide publikoan edari alkoholodunak kontsumitzeari dagokionez, debekatuta dago:

a) Bide publikoan edari alkoholodunak saldu eta kontsumitzea, terraza edo kanpoko mahaietan, feria egunetan, herriko jaietan edo ekitaldi berezietan izan ezik, baina nolana ere dagokion udal-lizentzia edo -baimena beharko da.

b) 18 urtetik beherakoei edari alkoholodunak saldu, hornitu eta kontsumitzea, bai salmenta-lekuetan, bai kontsumo-lekuetan.

Era berean, adingabeei edari alkoholodunak ematearen erantzuleak izango dira, adin nagusikoak izanik eta establezimendu eta komertzioetako arduradunen kontrolatik ihes

egiteko, edari alkoholdunak erosi eta adingabeei ematen dizkieten hirugarren pertsona guztiak.

Segurtasun-arrazoiengatik, jendetza handiak biltzen dituzten kontzertuetan edo antzeko ekitaldi eta ikuskizunetan edari alkoholdunak badaude, horiek plastikozko edalontzietan emango dira, eta inola ere ez dira onartuko kristal edo beirazko ontziak, ezta lata edo antzekoak ere.

4.- Tabakoaren kontsumoari dagokionez, indarreko legeriak gai horren inguruan ezartzen duena bete beharko da.